

Anarkoalaitasunaz

1.

Aurpegi batetik bestera, esku batetik, hitz eta irudi batetik bestera. 90.000 metroko pelikula erabili zuen Pier Paolo Pasolinik *La Rabbia* film hunkigarria eraiki eta idazteko. Itzulitururik gabe ematen dio hasiera filmari: “Zergatik dago gure bizitza, beldurra, itoaldia eta gerren mende?”, esaten digu Pasolinik bere ahotsean. “Galdera honi erantzuteko idatzi dut filma, nire arrazoi politikoak eta nire sentimendu poetikoa jarraituz eta ez dut hari kronologikorik ez logikorik jarraituko”.

Artista batzuek begitazioak dituzte, garaikideak izateaz gain bizi duten denborara aurreratzen dira. José Luisek joan den astean idazten zuenaren harira, Pasolinik ez zuen bakarrik XX. mendea disezcionatu, bizitza egokitu zaigun honakoaz ere betebeteen asmatu zuen. Bere filmetan mito klasikoak berrikusi eta birpentsatzeaz gain, gure egunerokotasuna metatzen duten albisteen irudien ifrentzua ekarri zigun. *Salò o le 120 giornate di Sodoma* luzean, esaterako, faxismoaren boterearen metafora bilakatzeko du sadomasokismoa. Adibideak soberan direla esango nuke. Epilogo moduko bat soilik: “Hitza eta gorputza dira errealtatearen azken gotorlekuak”, utzi zigun idatzia itsasargi baten moduan.

2. Anarkotristuraz eta anarkoalaitasunaz hitz egiteko anakronia moduko bat proposatuko dut: Spinozaren afektu alaiak eta tristeak. Gure indarra eta potentzialitatea areagotu egiten dituzte afektu alaiak. Afektu alaiak ez dira barre algara arina sortarazten digutenak edo barre enlatatuak. Eta tristeak ez dira malkoak. Afektu alaiak izan daiteke halaber, aspaldiko lagun bat, udaberriko malenkoniak blai leihotik begira, PESSOAREN esaldi bat gogoan duela.

Afektuak ez dira pertsonalak edo norbanako-



« Etsipenez beteta datorkigun etorkizunari begira,
 arrazoiaren ezkortasuna bizi nahi nuke,
 hori bai, borondatearen baikortasunari lotuta



ak, eta ez dute emozioekin eta sentimenduekin zerikusirik soilik. Spinozarentzat gorputzak duen ahalmena dira afektuak –gorputzak besteengan eragiteko eta erasatua izateko ahalmena hain zuzen ere—. Gorputza ez da aurretik finkatua dagoen zerbait, bizi eta ahalmen horixe. Horrela, afektuak besteekin konektatzeko aukera eta ahal-

mena dira. Spinoza, jakina, ez zen anakronikoa, ezta bere pentsamendua ere. Baina afektuei buruz idatzi zuenean ez zekien handik mende batzuetara anarkoalaitasunak bere egin zitzakeela hitzok.

3. Iruditzen zait balio gutxi dutela gorputzetik urrun esaten edota idazten diren hitzek. Nolabait esateko, karranka sortarazten didate belarrarian. Nondik ari zara hitz egiten, galdetzen diot askotan nire buruari, galdera beste norbaiti zuzenduz. Zaila da gorputzetik abiatuta gezurrik esatea. Hitzek bai, puztuak izateko arriskua dute, esperantza, egitismo, utopia, eta alaitasun apokrifoez.

Hau ez da hitzen edo lengoaiarekiko –dagoeneko espektakulo bilakatu bada ere– eszeptizismoa. Haatik, gorputza eta lengoia korapilatzearen aldeko xuxurla. Idazkera bera, bizitza osoa, gorputzaren kontuak dira. Elkartze horretan, gorputzaren haragian eta haragiaren dentsitatean, agertzen da bestea. Horra zerbaiten hasiera. Edo beste modu batean esateko, anarkoalaitasun bilaka daitekeen anarkotristurarena.

4. PESSOAK, haragiaren eta hitzaren elkarlanean, “izateak nekatu egiten du, sentitzeak min ematen du eta pentsatzeak hondatu”, idatzi zuen argiro. Nahiago, baina, Pasolinik maite zuen beste pentsalari ezagun haren hitzei heltzea: etsipenez beteta datorkigun etorkizunari begira, arrazoiaren ezkortasuna bizi nahi nuke, hori bai, borondatearen baikortasunari lotuta. ■